

Idazlana hobetzen: Hirigintzako zinegotziari eskutitza

Sekuentzia honetan ikasle batek eginiko 2. hizkuntz eskakizuneko idazlan batetik abiatuta, aztertzaileak ikusi dituen hobetu beharrekoen berri emango dugu, eta bide batez, idatzia hobetzeko zenbait aholku emango ditugu.

GAIA: Hirian bizi zara eta badakizu hango bizimoduaren berri: presa, trafikoa, kutsadura, zarata... Dagoeneko ohitua zaude, baina baduzu udalari egin beharreko protesta bat: nahiz eta etxetik garaiz irten, egunero lanera berandu iristen zara; eta, zure ustez, neurri handi batean udalak du horren errua, hainbeste semaforo ipini eta beraien artean koordinazio gehiago ez jartzeagatik. Beraz, behingoz hirigintzako zinegotziari eskutitz bat idaztea pentsatu duzu zeure kexa adierazi eta konponbidea eskatzeko. Idatz ezazu eskutitza.



Idazlana irakurgai

Hona hemen ikasleak idatzitakoa:

Jaun txit hori:

Goizeko seietan ohetik jeikitzen naiz egunero, hala ere, inoiz heltzen naiz zortziak baino lehen nire lanpostura. Gasteizen bertan bizi izan arren, nire etxetik lantegira joateko, kotxea erabili behar izaten dut urrun dagoelako.

Lantegira sartzeko ordua sekulan ez dut betetzen, izugarrizko trafikoa topatzen dudalako, eta honek arazo bat baino gehiago ekarri dizkit.

Nik DAEWO lantegian lan egiten dut, eta jakingo duzunez, bere jabeak japoniarrak dira. Hauen arauak guztiz desberdinak dira, eta ez dute ulertzen lantegira berandu heltzea. Hau dela eta, joan den urtean lantegiko jabearen abisua hartu nuen, berandu heltzen banintza berriro, nire lanpostua galdu egingo nuela esanez. Horregatik, gero eta goizago ohetik altxatzen naiz, gaua guztian ez dut lorik hartzen, nire izaera zeharo aldatu egin da, eta stressez beterik bizi naiz.

Gainera, joan den astean, nire senarrak esan zidan lasaitu egin behar nintzela bestela dibortziatuko egingo zela. Ezin duela jasan etxean dagoen giroa, dio.

Trafikoaren arazoa konpontzeko badago irtenbide bat edo beste: semaforo batzuk kendu edota koordinatu, eta haiek beharrean biribilguak jarri. Garraio publikoa hobetu, eta abar.

Azaldu dizudanez, egoera larrian nago eta konponbide bat aurkitu behar dut nire bizimodua eta izaera lasaitzeko. Ingenieritza ikasketak ditudanez eta Bilboko udaletxean Garraio Sailean egin nuenez, nahi baduzu batzarra bat izan dezakegu nire ideiak hobeto azaltzeko.

Besterik gabe eta aurretik eskerrak emanez agurtzen naiz.

Idazlana hobetzen: Egokitasuna

Idazlan honetan hobetu beharreko kontuetatik bat aukeratu dugu:
EGOKITASUNA

Idazlea testuinguruari eta erregistroari egokitu behar zazkio. Eta kasu honetan, eskutitz formala da idatzi beharreko eskutitza. Horrelakoetan, ahalik eta gutxien joko dugu datu pertsonaletara. Trafikoarekin lotutako informazioan luzatu beharko litzateke ikaslea, eta laneko kontuetan datu objektiboak eman, gehiegi pertsonalizatu gabe: "dibortzioa", "etxeko giroa", eta abar... aipatu gabe.

Idazlanean beltzez nabarmendutako esaldiak desegokiak dira erregistro formalean erabiltzeko.

Segidan idazlana duzu berriro, baina, zenbait esaldi beltzez daudela ikusiko duzu. Testua egokiagoa izan dadin, beste aukeraren bat pentsatzea proposatzen dizugu. Guk hiru aukera idatzi ditugu esaldi bakoitzeko.

Jaun txit hori:

Goizeko seietan ohetik jeikitzen naiz egunero. _1_ hala ere, inoiz heltzen naiz zortziak baino lehen nire lanpostura. Gasteizen bertan bizi izan arren, nire etxetik lantegira joateko, kotxea erabili behar izaten dut urrun dagoelako.

Lantegira sartzeko ordua sekulan ez dut betetzen, izugarritzko trafikoa topatzen dudalako, eta honek arazo bat baino gehiago ekarri dizkit.

Nik DAEWO lantegian lan egiten dut, **eta jakingo duzunez, bere jabeak japoniarrak dira. Hauen arauak guztiz desberdinak dira, eta ez dute ulertzen lantegira berandu heltzea** _2_. Hau dela eta, joan den urtean lantegiko jabearen abisua hartu nuen, berandu heltzen banintza berriro, nire lanpostua galdu egingo nuela esanez. **Horregatik, gero eta goizago ohetik altzatzen naiz, gaua guztian ez dut lorik hartzen, nire izaera zeharo aldatu egin da, eta stressez beterik bizi naiz** _3_

Gainera, joan den astean, nire senarrak esan zidan lasaitu egin behar nintzela bestela dibortziatuko egingo zela. Ezin duela jasan etxean dagoen giroa, dio _4_ .

Trafikoaren arazoa konpontzeko badago irtenbide bat edo beste: semaforo batzuk kendu edota koordinatu, eta haiek beharrean biribilguak jarri. Garraio publikoa hobetu, eta abar.

Azaldu dizudanez, egoera larrian nago eta konponbide bat aurkitu behar dut nire bizimodua eta izaera lasaitzeko _5_. Ingenieritza ikasketak ditudanez eta Bilboko udaletxean Garraio Sailean egin nuenez, nahi baduzu batzarra bat izan dezakegu nire ideiak hobeto azaltzeko.

Besterik gabe eta aurretik eskerrak emanez agurtzen naiz.

1.	Goizeko zazpitan abiatzen naiz Gasteizko kaleetan barrena.	Oso goiz, oilarrak kurrurruka hasi baino lehen, jaikitzen naiz beti.	Zuk uste duzuna baino lehenago jaikitzen naiz ni.
2.	bertan garrantzi handia ematen zaio puntualtasunari, beste toki batzuetan baino handiagoa.	jabe japoniarrek ezin dute eraman langileak ordua baino beranduago iristea.	nola ez, ezin naiz berandu iritsi, ze nire nagusia japoniarra da eta oso zorrotza ordutegiarekin, badakizu...
3.	Horregatik, erabat nekatuta eta estresatuta bizi naiz orain.	Horregatik, egunero, ia-ia ohetik erortzen naiz alarmak jotzen duenean.	Horregatik, askotan saiatu naiz errepidera lehenago ateratzen, trafiko-arazoak saihesteko, baina alferrik.
4.	Gainera, berdin da zein bide aukeratzen dudan, denetan baitago arazo bera.	Gainera, erabat haserre dabil familia osoa, baita nire senarra ere.	Gainera, dibortziatzeotan nabil, nire senarrarekin dudan harremana erabat gaiztotu delako.
5.	Egoera jasanezina bihurtzen ari da eta uste dut badela garaia soluziobide egokiak aurkitzeko, nik, behintzat, pentsatu ditut batzuk.	Ulertuko duzun bezala, nire egoera oso larria da eta ezin dut gehiago jasan.	Uste dut garbi ikusiko duzula ez dela txantxa bat eta benetan irtenbide bat behar dudala.

Zeure eskutitza idatzi

Orain, berriz, zuk zeuk idatziko diozu kexa-gutuna hirigintza zinegotziari. Gogoan izan garbi azaldu behar duzula zein den egoera, zeure kexa adierazi eta konponbidea eskatu behar diozula.

Lan honetan laguntzeko, zenbait eredu eskainiko dizkizugu. Antzuola, Aramaio, Aretxabaleta, Arrasate, bergara, Elgeta, Eskoriatza, Leintz-Gatzaga eta Oñatiko udalak argitaratutako Idatziak: gonbitak, zorion agurrak, oharrak... liburuxkatik 58. orrialdeko Jabetza publikoko ondasunei eragindako kalteak salatzea izeneko idatzia. Hona hemen, PDF formatuan.

Liburuxka osorik helbide honetanaurkituko duzu.

Erantzunak

Jaun txit hori:

Goizeko seietan ohetik jeikitzen naiz egunero. **(Goizeko zazpietan abiatzen naiz Gasteizko kaleetan barrena.)** hala ere, inoiz heltzen naiz zortziak baino lehen nire lanpostura. Gasteizen bertan bizi izan arren, nire etxetik lantegira joateko, kotxea erabili behar izaten dut urrun dagoelako.

Lantegira sartzeko ordua sekulan ez dut betetzen, izugarrizko trafikoa topatzen dudalako, eta honek arazo bat baino gehiago ekarri dizkit.

Nik DAEWO lantegian lan egiten dut, eta jakingo duzunez, bere jabeak japoniarrak dira. Hauen arauak guztiz desberdinak dira, eta ez dute ulertzen lantegira berandu heltzea **(bertan garrantzi handia ematen zaio puntualtasunari, beste toki batzuetan baino handiagoa.)**. Hau dela eta, joan den urtean lantegiko jabearen abisua hartu nuen, berandu heltzen banintza berriro, nire lanpostua galdu egingo nuela esanez. Horregatik, gero eta goizago ohetik altzatzen naiz, gaua guztian ez dut lorik hartzen, nire izaera zeharo aldatu egin da, eta stressez beterik bizi naiz **(Horregatik, askotan saiatu naiz errepidera lehenago ateratzen, trafiko-arazoak saihesteko, baina alferrik.)**

Gainera, joan den astean, nire senarrak esan zidan lasaitu egin behar nintzela bestela dibortziatuko egingo zela. Ezin duela jasan etxean dagoen giroa, dio **(Gainera, berdin da zein bide aukeratzeko, denetan baitago arazo bera.)**.

Trafikoaren arazoa konpontzeko badago irtenbide bat edo beste: semaforo batzuk kendu edota koordinatu, eta haiek beharrean biribilguak jarri. Garraio publikoa hobetu, eta abar.

Azaldu dizudanez, egoera larrian nago eta konponbide bat aurkitu behar dut nire bizimodua eta izaera lasaitzeko **(Egoera jasanezina bihurtzen ari da eta uste dut badela garaia soluziobide egokiak aurkitzeko, nik, behintzat, pentsatu ditut batzuk.)**. Ingenieritza ikasketak ditudanez eta Bilboko udaletxean Garraio Sailean egin nuenez, nahi baduzu batzarra bat izan dezakegu nire ideiak hobeto azaltzeko.

Besterik gabe eta aurretik eskerrak emanez agurtzen naiz.